

Andoni Ortuzar

Sabin Etxea. 2019-12-3

Egun on! Eskerrik asko gure deialdiari erantzuteagatik. Gaurko prentsaurrekoa deitu dugu Autogobernu Lantaldean egiten ari diren lanei buruzko lehen balorazio bat egiteko, adituek beren lana amaitu ondoren. Dakizuenez, aditu hauei 2018ko irailean eskatu zitzairen indarrean dagoen Autonomia Estatutua aldarazteko Lege Proposamenaren lehen artikuludun testua idaztea.

Une honetan eta, lehenengo eta behin, guztiek egin duten lana balioetsi nahi dut eta guztiei eskertu nahi diet beren lana eta beren dedikazioa. Ikuspuntu ezberdinetatik eta bakoitzak bere pentsamendu politikoarekin, Mikel Legardak, Iñigo Urrutiak, Arantza Elizondok, Alberto López Basagurenak eta Jaime Ignacio Del Burgok agiri ezberdinetan proposamen juridiko bat jaso dute, alde batetik, Euskadirentzako autogobernu Estatus Berri bat lortzeko eta, beste alde batetik, lanen lehen fase batean alderdi ezberdinetako ordezkariak Lantaldearen Oinarri Politikoetan adostu genituen adostasun puntuak zabaltzeko. Gaur, jarrera guztiekiko errespetua adierazi nahi dut, horietako batzuekin, logikoa denez, distantzia ukazina daukagun arren.

Gure ustez, oro har, adituen batzordeak egokiro bete du Lantaldeak eman zion enkargua, eta honela dio: “Adostutako oinarriak errespetatuz eta babestuz, aukera aztertuko eta ahalegina egingo du oinarrian eta aurkeztutako boto partikularren artean bat datozen puntuak aurkitzeko, zabaltze aldera, posible balitz, dagoeneko lortu diren adostasunak”.

Lanetatik hiru dokumentu desberdin atera dira. Lehenengoa, hainbat ekarpenekin, hainbat boto partikularrekin eta zenbait desadostasunekin, Legarda, Elizondo eta López Basagurenaren artean akordio nabarmena lortu duena maila kuantitatiboan zein kualitatiboan. Eta bigarrena eta hirugarrena, Urrutiak eta Del Burgok sinatutako agiri bana, hurrenez hurren. Zentzu honetan, aipamen berezi bat egin nahi dut eta bereziki eskertu nahi diot Mikel Legardari, oso zorrotza izan delako konfidentzialtasun kontuekin eta konpromiso handia erakutsi duelako, ez baita batere erraza izan adostasunak lortzea. Dokumentu nagusiaren %80 baino gehiago adostuta dago. Aurkeztu dituzten 146 artikuluetatik 118k aho bateko adostasuna jaso dute hiruren artean; beste 28tan, ordea, aldeak daude, batzuk sakonak –ez dago ukatu beharrik– eta beste batzuk partzialagoak edo sintaktikoagoak dira. Urrutia adituarekin eta herritarren oinarritzko eskubideen arloan ere badaude kointzidentzia argi eta esanguratsuak. Gernikako Estatutuak 47 artikulua ditu eta testu berriak 146 artikulua izango lituzke. Aurrerapauso nabarmena da gure autogobernuaren kantitatean eta kalitatean, baldin eta jasotako proposamenek, azkenean, akordio politikoa lortzen badute eta lege batean jasotzen badira.

EAJren ustez, Mikel Legardak defendatutako testuan, bai adostutako zatietan, bai egindako boto partikularretan, Autogobernu Lantaldetik ateratako oinarri politikoak jasotzen dira, eta legezko-tasun-printzipioa eta printzipio demokratikoa uztartzen dira Lantaldeak hasieratik ezarri zuen prozesu osoaren giltzarri gisa. Era berean, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren eta Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarri bakarraren interpretazio positiboa egin da, proposamen horien guztien

oinarri juridikoaren bermatzaile gisa. EAJk, beraz, bere burua aitortzen du testu honetan. Bertan, Euskadiren nazio-nortasuna agertzen da; Espainiako Estatuarekiko alde biko harremana jasota dago; Politika Itunaren Batzorde bat sortzea planteatzen da, Ekonomia Itunaren esparruan gure eskuduntzak bermatzeko dagoenaren antzekoa; Eusko Legebiltzarraren gehiengo batek adostutako testua Gorte Nagusietara bidali baino lehenagoko kontsulta gaitzailea ere dago; erabaki eskubidea ere hori dago; eta guk erabaki eskubide hori baliatzea proposatzen dugu Estatuarekin adostu aurretik.

Desadostasunak daude. Jakina daudela. Baina desadostasunak daude erkidego honek urteak eta hamarkadak daramatzalako oinarri politikoa duten arazo batzuk arrastaka eramaten, eta arazo horiek dira, hain zuzen ere, gaintu nahi ditugunak, akordioaren bidez. Horretarako sortu zen Autogobernu Lantaldea, Euskadientzat Estatus Berri bat sortzen lagundu behar duena. Alde horretatik, alderdi politikook zintzotasunez jokatu behar dugu, eta publikoki aitortu behar dugu adituei ezin diegula eskatu ezberdintasun horien aurrean ezikusiarrena egin dezatela edo hain urrunetik datozen ezbaiak berehala konpon ditzatela. Alderantziz. Txalotu egin nahi dut desadostasun horiek antzemateko eta lokalizatzeko egin duten ahalegina eta idazkera alternatiboak proposatzeko egin duten esfortzua. Nahikoa lortu dute, hori egia da, eta erredakzio berri horiek eta adostasun berri horiek lana erraztuko diete alderdi politikoei orain irekiko den fasean, Autogobernu Lantaldeak erabakiko duen denboran eta moduan.

Bost adituek dagoeneko egin dute beren lana, eta Eusko Legebiltzarrean utzi dute. Pilota alderdi politikoen teiltura itzuliko da orain, hain zuzen ere Autogobernu Lantaldere. EAJren aldetik gogoeta-aldi bat irekitzea proposatzen dugu, adituek ekarritako dokumentuak sakonki aztertzeko eta, hala badagokio, Estatus Berrirako proposamen baten idazketa formala atera dezagun, Legebiltzarrean izapidetzeko. Autogobernu Lantaldetan akordio zabalago bat lortzeko gai ote garen ikusteko denbora izango da. Baita eztabaida politikoan beste erreforma batzuk sartzeko ere, dela Espainiako Konstituzioarena, dela beste lege batzuen, euskal herritarrei beren autogobernua hobeto bermatzeko, beren borondate demokratikoan oinarrituta eta Herri gisa dagozkien Eskubide Historikoen arabera. Fase berri honetara sartuko gara gure jarrerarik onenarekin eta ahalik eta adostasunik handiena lortzeko erabaki irmoarekin.

Andoni Ortuzar

Sabin Etxea. 2019-12-3

Egun on! Gracias por asistir a esta rueda de prensa convocada para hacer una primera valoración de urgencia sobre los trabajos de la Ponencia de Autogobierno una vez finalizada la labor de los expertos que, como todos ustedes saben, recibieron en septiembre de 2018 la encomienda de redactar la propuesta inicial de texto articulado de la Proposición de Ley de reforma del Estatuto de Autonomía vigente.

Quiero poner en valor y agradecer a todos ellos y a ella el trabajo que han hecho y su dedicación. Desde ópticas muy distintas y con pensamientos políticos muy dispares, Mikel Legarda, Iñigo Urrutia, Arantza Elizondo, Alberto López Basaguren y Jaime

Ignacio Del Burgo han plasmado en diversos documentos su propuesta jurídica para lograr un nuevo estatus de autogobierno para Euskadi, así como para ampliar y ensanchar los puntos de acuerdo que en una primera fase de los trabajos habíamos alcanzado los partidos en las conocidas como Bases Políticas en el seno de la Ponencia. Hoy quiero mostrar nuestro respeto a todas las posiciones aunque, lógicamente, con algunas de ellas tengamos una distancia insoslayable.

Creemos que en líneas generales la comisión de expertos ha dado cumplimiento cabal al encargo que recibieron de la ponencia, que no era otro, y leo, que este: “Desde el respeto y salvaguarda de las bases consensuadas, se contemplará y procurará la posibilidad de hallar puntos de conexión de estas con los votos particulares presentados en la búsqueda de ampliar, si fuera posible, los consensos ya alcanzados”.

De los trabajos han resultado tres documentos diferentes. Uno, que con diversas aportaciones, varios votos particulares y algunas discrepancias pero que ha conseguido un grado muy relevante de acuerdo cualitativo y cuantitativo entre Legarda, Elizondo y López Basaguren. Y sendos documentos unipersonales suscritos por Urrutia y Del Burgo, respectivamente. Quiero tener una mención y un agradecimiento personalizado para con Mikel Legarda, por la escrupulosidad con que ha respetado la confidencialidad y el compromiso con el que ha ejercido la nada fácil tarea de hilvanar consensos. Más del 80% del documento central está consensuado. 118 de los 146 artículos del texto que han presentado suscitan un acuerdo unánime entre los tres, habiendo otros 28 en los que efectivamente se constatan diferencias, unas de calado – por qué negarlo– y otras más parciales o incluso sintácticas. Hay indudables y significativas coincidencias también con el experto Urrutia y con el texto que ha presentado en ámbitos muy importantes que tienen que ver con derechos básicos de la ciudadanía. Pasamos de un Estatuto, el de Gernika, que tiene 47 artículos a un texto articulado que constaría de 146. Es un avance notable en la cantidad y en la calidad de nuestro autogobierno si las propuestas contenidas vieran finalmente la luz del acuerdo político y su traducción legal.

El PNV considera que en el texto defendido por Mikel Legarda, bien en sus partes acordadas, bien en los votos particulares realizados, se contienen las bases políticas emanadas de la ponencia y se hace una inteligente y viable combinación del principio de legalidad con el principio democrático, principios ambos que la Ponencia fijó desde sus inicios como claves de todo el proceso. Igualmente se advierte una interpretación positiva de la Disposición Adicional primera de la Constitución y de la Disposición Adicional Única del Estatuto de Gernika como garantes del fundamento jurídico de todas estas propuestas. El PNV, por lo tanto, se reconoce en este texto. En él figuran la identidad nacional de Euskadi; está la relación bilateral con el Estado español; está la creación de una Comisión de Concerto Político, similar a la que ya funciona y opera en el ámbito del Concerto Económico para garantizar nuestras competencias; para futuras reformas estaría la consulta habilitante previa a la remisión a las Cortes Generales del texto que seamos capaces de acordar una mayoría del Parlamento Vasco; y está también el derecho a decidir, cuyo ejercicio proponemos previo pacto con el Estado.

Hay discrepancias. Por supuesto que las hay. Las hay entre los cinco expertos entre sí, pero las hay incluso entre los tres expertos que han sido capaces de acordar un texto troncal al que han aportado sus votos discrepantes o particulares. Y hay discrepancias porque esta comunidad lleva años, décadas, arrastrando una serie de problemas de neta raíz política que son precisamente los que queremos superar, desde el acuerdo, y es para lo que se creó la Ponencia de Autogobierno que debe alumbrar un Nuevo Estatus para Euskadi. En este sentido, los partidos políticos debemos ser honestos y reconocer públicamente que no podemos pedir a los expertos que ignoren o incluso que zanjen estas diferencias y estas discrepancias que vienen de muy lejos. Al contrario. Quiero aplaudir el esfuerzo que de forma mayoritaria han hecho para detectar y localizar esas discrepancias y proponer redacciones alternativas. Lo han logrado suficientemente, este es un hecho cierto, y estas nuevas redacciones y estos nuevos consensos van a facilitar la tarea a los partidos políticos en la fase que se abrirá ahora, en el tiempo, modo y manera que decida la Ponencia de Autogobierno.

Las cinco personas expertas han realizado ya su trabajo y lo han depositado en el Parlamento Vasco. La pelota vuelve ahora a los partidos políticos, en concreto a la Ponencia de Autogobierno. En el PNV somos partidarios de abrir un periodo de reflexión para que podamos analizar con profundidad los documentos aportados por los expertos y extraer de ellos, en su caso, la redacción formal de una propuesta de Nuevo Estatus para su tramitación parlamentaria. Tiempo para ver si somos capaces de llegar a un acuerdo más amplio aún en el seno de la Ponencia de Autogobierno. Y tiempo también para introducir en el debate político la necesidad de otras reformas, ya sea de la Constitución española o de otras leyes para garantizar aún mejor el acceso de la ciudadanía vasca a su autogobierno en virtud de su voluntad democrática y de los Derechos Históricos que le asisten como Pueblo. Acudiremos a esta nueva fase con la mejor de nuestras disposiciones y la firme determinación de lograr el acuerdo más amplio posible.